

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Basozaintzako 31 plaza deitu dira

Oposizioari esker, plantillaren behin-behinekotasun altuari aurre egin ahal izango zaio

Astelehena, 2019.eko urtarrilak 28

[Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) gaur argitaratu da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden basozainen lanposturako hogeita hamaika plazaren oposizioa.

Funtzionario erregimeneko eta C mailako 31 plaza izango dira, 15 plaza txanda irekikoak, 15 plaza igoera-txandakoak eta plaza 1 erreserbatxandakoa ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat.

Izangaiek eskatutako titulazioa (Baso Kudeaketako eta Natura Inguruneke Goi Teknikaria edo Baliabide Naturalen eta Paisaiaren Kudeaketa eta Antolamendukoa; Baso Ustiapeneko edo Baso Aprobetxamenduetako eta Naturaren Kontserbazioko Teknikari Espezialista edo Nekazaritzako Familia Profesionalekoa) eta B motako ibilgailuak gidatzeko baimena eduki beharko dituzte. [Eskaera](#) otsailaren 27ra arte aurkeztu ahal izango dute www.navarra.es helbidean, nabigazio-orri hau jarraituz: “Enplegua”, “Enplegu-eskaintzak”, “Enplegu publikoa Foru Administrazioan”, “Enplegu finkoen eta aldi baterako enpleguen deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

Oposizioak 2019ko maiatzetik aurrera izango dira, eta hiru proba egingo dira: bata, teoriko-praktikoa, idatziz erantzuteko test erako 100 galdera; bigarrena, proba fisikoa, lanpostuaren funtzioak betetzeko beharrezko gaitasun fisikoa egiaztatzearen; eta hirugarrena, praktikoa, gai-zerrendako gaien inguruan epaimahaiak egindako galdera praktikoak idatziz garatzeko eta konpontzeko.

2019-2022 urtetarako Basozaintza Plan Zuzentzailea eta hurrengo Foru Dekretua

Azken hilabeteetan, eta Basozaintzako langileen parte-hartzearekin, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia 2019-2022 urtetarako Basozaintza Plan Zuzentzailea garatzen aritu da, datozen urteei begira talde horren ibilbide-orria jasotze aldera.

Planaren ildo estrategikoenetariko bat bezala langileen gaia agertzen da, behar bezala gehitzeko eta Basozainen behin-behinekotasuna ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin (egun, %25 ingurukoa). Arazo hori aipatu Plan Zuzentzaileko egindako diagnostikoan garbieraren identifikatutako puntu ahulenetariko bat da, eta, egoera hori zuzentzeko, gaur NAO n argitaratutako deialdia abian jarri da.

Deialdia, halaber, Basozaintzaren papera indartzeko lanean kokatzen da. Basozaintzaren eta Ingurumen Kudeaketaren Kalitatearen zerbitzua sortu zuten, eta, azaroaz geroztik, Basozaintzaren lehengo Atala ordezkatu du. Bi ekimenak unitate horretarako beste plan zabalago batean sartzen dira, eta plan horretan hainbat neurri daude, tartean Basozaintzaren antolamendua eta funtzioak arautuko dituen Foru Dekretua onartzea, lurraldea hamaika mugapetan antolatzen duen mapa berria onartu berria eta Lurraldeko Bulegoak eta ibilgailuen ontzidia berritzea.